

BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.**IRAGARKIA**

Bilbao Ekintza, E.P.E.L.en hutsik dauden lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuko **hirugarren ariketaren behin- behineko kalifikazioa, oposizio-fasearen behin- behineko kalifikazioa eta betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko epea** irekitzea.

Derrigorrezko euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna duten **Zuzenbideko eta Kontratazioko teknikarien 2 lanpostu** (bi lanpostu horietako bat desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta dago) lan-kontratudun finko gisa betetzeko 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza Arruntari dagokion hautaketa-prozesua epaitzeaz arduratzen den epaimahaiak, irailaren 29ko bileran, honako hau xedatu du:

Lehenengoa.- Oposizioaren HIRUGARREN ARIKETAn lortutako behin-behineko kalifikazioa, nahitaezkoa eta ez kanporatzailea, onartzea eta argitaratzea. Kalifikazio hori 10 punturen gainean baloratu da, eta iragarki honi erantsi zaio.

Bigarrena.- Deialdiko oinarrietan jasotako ariketak gainditzeagatik fase horretan GAI izan diren izangaien behin-behineko kalifikazioa onartzea eta argitaratzea. Zerrenda iragarki honi erantsi zaio.

Hirugarrena.- Kalifikazioaren aurkako erreklamazioak telematikoki aurkeztu beharko dira ope@bilbaoekintza.bilbao.eus helbide elektronikoaren bidez, edo aurrez aurre Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kaleko 5. zenbakiko 2. solairua), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era, 3 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; hau da, 2025eko urriaren 2an amaituko da epea.

Laugarrena.- Jakinaraztea oposizio-faseko behin behineko kalifikazioan GAI izan diren izangaiek euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutela, eskatutako 2. hizkuntza-eskakizuna baino handiagoa, nahitaezkoa eta baztertzaila, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Beraz, ez zaie deirik egingo laugarren ariketa egiteko (euskarako idatzizko proba).

Bosgarrena.- Zerrenda horretan agertzen diren pertsonak jakinaraztea oinarri espezifikotik ezarritakoarekin bat **eskabideak aurkezteko epean adierazitako LEHIAKETA FASEARI dagozkion betekizun eta merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituztela**. Agiri horiek aurkezteko epea 5 egun baliodunekoa da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea 2025ko urriaren 6an amaituko da.

Merezimenduak honela aurkeztu ahalko dira:

- a) Modu presentzialean, Bilbao Ekintzako bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara; bulegoak Nafarroa kalea 5.a, 2. solairuan daude (Giza Baliabideen Saila).
- b) Telematikoki, Erregistro Orokorrean, eskaera egiteko eta dokumentazioa aurkezteko izapidearen bidez, esteka honetan:
<https://www.bilbao.eus/aytoonline/jsp/instanciageneral/login.jsp?idioma=c>

Erreferentziako deialdia adierazi beharko da: **OPE 2022 Bilbao Ekintza TJC**

Kanal horretan baldintza hauek bete beharko dira:

- Beharrezkoa da identifikazio elektronikorako bitarteko bat izatea (ziurtagiri elektronikoa edo BakQ).
- Fitxategiak eransteko, honako hauek hartu beharko dira kontuan:
 - Eskaera bakoitzeko fitxategi kopurua, gehienez: 10.
 - Fitxategi bakoitzak gehienez 5MB okupatzea gomendatzen da.
 - Guztira, erantsitako fitxategiek ezingo dute 20MB baino gehiago okupatu.
 - Fitxategiaren izenak ezin ditu izan tildeak, espazioak, puntuak (dokumentu motaren puntu bereizgarria izan ezik: .jpg, .doc, .pdf), ñ letra edo karaktere bereziak (&, %, #, |).
 - Formatu hauek onartzen dira: PDF, DOC, DOCX, JPG, JPEG, ZIP, 7Z.

Prozesuaren legea diren deialdiaren oinarriekin bat etorritz, gogorarazten da bakarrik baloratuko direla berariaz oinarri espezifikoetan ezarritako merezimenduak, aldez aurretik onarpen-eskabidean alegatu direnak eta eskaerak aurkezteko epea amaitu artekoak, hau da, **2025ko otsailaren 19an**.

Bilbon, 2025eko irailaren 29a



EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
NAGORE OLABARRIA SANTOBEÑA

Hirugarren ariketaren behin-behineko kalifikazioak

ESPTE. BE 2022-0001

ZUZENBIDEKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIA

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Guztira Total Máx.: 10
*60***06	BILBAO	FERNANDEZ	OIHANE	8,24
***5*082	HERRAN	REINO	AINHOA	6,62
*240***1	VAZQUEZ	FANDIÑO	MARIA DEL CARMEN	4,47

OPOSIZIO-FASEAREN behin-behineko kalifikazioak

ESPTE. BE 2022-0001

ZUZENBIDEKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIA

NAN/DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo ariketa Primer ejercicio	Bigarren ariketa Segundo ejercicio	Hirugarren ariketa Tercer ejercicio	Laugarren ariketa Cuarto ejercicio	Guztira Total	
***5*082	HERRAN	REINO	AINHOA	15,70	21,15	6,62	SALBUETSIA/EXENTA	43,47	GAI/ APTA
*60***06	BILBAO	FERNANDEZ	OIHANE	15,08	19,80	8,24	SALBUETSIA/EXENTA	43,12	GAI/ APTO
*240***1	VAZQUEZ	FANDIÑO	MARIA DEL CARMEN	15,83	15,60	4,47	SALBUETSIA/EXENTA	35,90	GAI/ APTA